

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUDDESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Castejongo kontsultategiak zazpi kontsulta gela berri edukiko ditu

Kutz eta García Malo kontseilariak berritzeko obrak ikustera joan dira, Osasun Departamentuak 625.772 euroko diru-laguntza eman baitu

Viernes, 25 de marzo de 2011

Osasun eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak, María Kutz Peironcely eta M^a Isabel García Malo, hurrenez hurren, Castejongo kontsultategia handitzeko eta berritzeko obrak ikustera joan dira gaur goizean. Osasun Departamentuak 625.772 euro eman dizkio Castejongo udalari obra horiek egiteko.

Kontsultategia dagoen eraikina berritzeko eta handitzeko obrak egin dira; hala, eraikinaren azalera 276 metro koadro handitu da eta horri esker, zazpi kontsulta gela berri, harrera leku bat eta historia klinikoen artxibategi bat egingo dira. Diru-laguntzen bidez jasotako 625.772 euroko zenbatekotik 576.000 euro obren proiektua egin eta burutzeko erabili dira, 37.903 euro handitu den eremua altzariz eta ekipoz hornitzeko eta 11.569 euro medikuen altzarietarako.

Castejongo kontsultategia Corellako Oinarrizko Osasun Barrutira dago atxikita eta Tuterako Osasun Barrutian dago. 4.446 osasun txartel ditu esleituta, 3.649 helduentzat eta 797 pediatriako erabiltzaileentzat. Langileen zerrenda bi mediku orokorrek, pediatria batek, hiru erizainek eta bi administrarik osatzen dute. Gizarte langile bat ere kontsultategian izaten da astean hainbat egunetan.



Kutz eta García Malo kontseilariak, Osasun Departamentuko agintariak, udaleko agintariak eta osasun langileak Castejongo kontsultategian